

Canadako hizkuntz erakundeak

Pello Esnal eta
Juan Migel Gutierrez

Sor eta lor geratu ginen Quebec-en, Euskal Herritik hango egoera linguistikoa eta frantsesaren hizkuntz borroka aztertzeraz joan ginenok. Izan genuen, noski, horretarako arrazoirik.

Gure harriduraren eragileen artean bada bat azpimarratu gabe gera ezin daitekeena: Quebec probintzian eta, maila apalago batean, Canada osoan frantses hizkuntza berreskuratzeko eta herria frantsesteko eraiki den burokrazia eta erakunde-sare erraldoia, alegia.

Erakunde horien berri orokorra ematea da, hain zuzen, orrialde hauen xedea. Berri zehatzagorik nahi duenak, badu bereganatzeko aukerarik. Horretarako, nahikoa du artikulua honetako zenbait atalen ondoren aipatzen ditugun idazki, agiri eta abarretara jotzearekin.

Quebec-en bi eratako erakundeak ikusi genituen: sorrera 101 legeari zor ziotenak eta frantsesaren irakaskuntzari emanak daudenak. Otawan, berriz, hizkuntza ofizialen komisarioarenaz gainera, hiru erakunderen berri jaso ahal izan genuen.

I.—QUEBEC FRANTSESTEARI EMANAK DAUDEN ERAKUNDEAK

1. 101 LEGEAK SORTURIKO ERAKUNDEAK

1.1. Office de la langue française

Erakunde exekutibo honek delako «Karta»ren II kapituluari du sorrera. Bere eginbeharra zera da: frantsese-programen burutzea nola administrazioan eta lanaren arloan, hala irakaskuntzan eta elkarte profesionaletan. Toponimi Batzorde bat ere hor ari da lanean, toponimiako izenak frantsesten. Beste bi sail ere baditu, frantses hizkuntzaren hiztegi teknikoaren ingelesarenaren parean jartzen dihardutenak.

Hemen Frantsese-programen zuzendaritza, Terminologiaren zuzendaritza eta Dokumentazio eta Terminologi bankuaren berri emango dugu.

1.1.1. Frantsese-programen Zuzendaritza

Zuzendaritza honen ardurapean dago frantsesa honako arlo hauetan ezartzea:

- a) enpresa pribatuetan:
 - txiki eta erdikoetan.
 - handietan.
 - multinazionalen.
- b) administrazioan.
- c) irakaskuntza eta elkarte profesionaletan.

1.1.1.1. Enpresa pribatuen frantsestea

Honela dihardute enpresa pribatuen frantsestea:

- a) enpresa katalogatu egiten dute eta haren datu orokorrak biltzen.
- b) enpresako egoera linguistikoaren analisisa egiten dute.
- d) enpresa frantsesteako programa progresiboa eratzen dute eta, enpresako egoera kontutan harturik, gomendioak egiten.
- e) sei edo hamabi hilabetero txosten bat idazten dute, enpresaren frantseste-arduradunarekin batera, programa nola betetzen den aztertuz.
- f) azkenik, frantseste-agiria ematen zaio enpresari. Agiria, kontrolaren ondorioen arabera, behin-behinekoa edo behin-betikoak izan daiteke.

Gaurregun 6.000 dira frantseste-programak aurrera daramatzen. Egita-muaren arabera, 1983.aren amaierarako enpresa guztien frantseste-programak burutuak izango dira; eta 1989rako, berriz, enpresa guztiak frantseste-agiri-
ren baten jabe izango dira, batzu behin-betikoarena, beste batzu behin-behinekoarena.

1.1.1.2. Administrazioaren frantsestea

Antzeko jokabidea daramate Administrazio publikoaren, irakaskuntzaren eta profesionalen elkartearen frantseste-prozesuan. Eta hala frantsesten ari dira iragarki publikoak, agiri ofizialak, kontratuak, bide-seinalaztapenak... eta administrazioak pertsona fisikoekin eta erakundeekin, idatziz, nahiz ahoz, dituen harremanak.

Frantseste-programen zuzendaritzari buruzko dokumentazioa.

«Direction des programmes de francisation». Orri batzu dira, non frantseste-zerbitzuaren egituraren berri ematen den.

Zenbait orri tolestatu:

«La langue du travail».

«Ordres professionnels».

«Le comité de francisation».

«La langue du commerce et des affaires».

«Apprentissage du français comme langue seconde».

«Les test linguistiques».

«Situation linguistique de l'organisme» (Administrazioaren frantsestea dela-ta, datuak jasotzeko orri bikoitza).

«Analyse linguistique et programme de francisation de l'Administration».

«Service des programmes de francisation de la petite et moyenne entreprise» erakundeari dagozkionak:

«La francisation de la petite et moyenne entreprise».

«Renseignements généraux».

«Quelques moyens de francisation».

«Service des programmes de francisation de la grande entreprise» erakundeari dagozkionak:

«Programme-type de francisation des entreprises comptant plus de 100 employés».

«Entente particulière type pour les sièges sociaux».

«Entente particulière type pour activités de recherche et de développement».

Enpresa arloari dagozkio honako beste bi hauek ere:

«Comment obtenir un certificat de francisation».

«Analyse linguistique de l'entreprise» eta «Guide d'utilisation du document» osagarria.

1.1.2. Terminologiaren Zuzendaritza

Erakunde honen betebeharrak zera da: administrazioan eta enpresa pribatuetan frantsesta erabiltzen duten pertsonen hiztegi egokiak eskaintzea. Azpimarratzekoa da, gainera, zerbitzu hau

zabalik dagoela erabili nahi duen edonorentzat.

Terminologia eta beraren inguruko lanei 1960-1970. hamarkadan eman zitzaizen hasiera, baliabide urri eta langile gutxirekin (15 pertsona ziren guztira). Gutxi horiek izan ziren, hain zuzen, instituzioen inolako laguntzarik gabe, lehen lantegi-hiztegiak moldatu zituztenak. Geroago, eta zetozen aldaketa politikoak aurrikusirik, lanabes egoki eta sofistikutuagoen jabe egin ziren; ondoren, instituzioen laguntzaz, lan-beginagoei ekin zietelarik. Horrela hasten da zenbait lan eskerga, Canada-ko ekonomi sektoreei dagokien terminologia zehatzuz: meatzaritza, paper, energia eta abarri dagokiena alegia. Era berean, eta enpresen arteko hiztegi arazoei begira, zenbait hizkuntz zerbitzu, kontseilu eta adituz osatutako hainbat batzorde sortu zen.

Gero, Kartaren aginduz, ofizialki eta bete-betean sartuko da normalizazio-prozesuan frantses-terminologia espezializatuaren erabilpena.

Zerbitzu honetan ari direnek, hizkuntzalariak izanik, gai bakoitzean adituak direnekin elkar hartuta dihardute, metodo sozio-linguistikoaren arabera.

Terminologia Zerbitzuaren atak irekita daude nornahirentzat, nahi duen kontsulta egin dezan. Bertan dituzten ordenadore-terminalak eta telefonoak etengabe ari dira laguntza ematen bai enpresei, bai gizabanakoei. Datu interresgarria, 60.000 deialdi inguru jasotzen dituzte urtero telefonoz.

Bi galdera-mota jasotzen dituzte:

1. Hitz bakar edo isolatuei buruzkoak eta
2. Espezialitate bati dagokion hiztegi osoari buruzkoak. Hiztegi hauen prestakuntzan Office-ko terminologi-adituek eta enpresak frantses-terko batzordekoek parte hartzen dute. Hiztegi-gintzan honelako urratsak ematen dira: hasteko, dauden hiztegi guztien erabateko azterketa egiten da; ondoren, erizpide ba-

tzu aurkezten zaizkio Office-ko idazkariari, honek Office-ko plenoari eman diezazkion. Plenoak erabakia hartzen du eta aukeratutako hitzak eta hiztegiak Quebec-eko Buletin Ofizialean argitaratzen dira, besterik gabe Quebec-eko terminologia bankuaren parte izatera pasatzen direlarik.

1.1.3. *Dokumentazio eta Terminologi bankua*

Terminologi batzordearen lana kanporatzeak eskatzen dituen behar-premiei erantzuteko sortu zen, hain zuzen, bankua.

Enpresetan nahiz administrazioan erabilitako hitz tekniko guztiak ordenadorean biltzen dira eta, horrela, edozein erakunde publiko edo pribatuk terminalaren bidez ordenadorean bildutako datuen berri jakiteko aukera du.

Ordenadoreak hitzaren itzulpena eta, definizioarekin batera, gaiari dagokion dokumentazioa ematen du. Dokumentazioa 30.000 tituluk osatzen dute eta 3 miloi dira hitzen fitxak; eta bai hitzak eta bai dokumentuak noizean behin berrikusi egiten dira.

Esan beharra dago, baita ere, Terminologi Bankua munduko terminologi banku nagusienekin harremanetan dagoela.

Terminologiaren Zuzendaritza eta Dokumentazio- eta Terminologi bankuari buruzko dokumentazioa.

— Zenbait hiztegi espezializaturiko dagoeniz:

- «Construction. Bibliographies».
- «Electricité, électrotechnique et électronique. Bibliographies».

— Zenbait orri tolestatu, aipatu gaiari dagozkionak:

- «Direction de la terminologie».
- «Banque de terminologie de Québec».
- «Comision de terminologie de l'Office de la langue française».
- «La politique de subvention en matière de recherche linguistique et terminologique».

— «Connaissez-vous nos publications» (argitalpenen katalogoa).

— Beste zenbait txosten karpeta batean bilduak.

«Office de la langue française» erakundeari dagokiona amaitzeko, esan dezagun 375 funtzionario ari direla bertan lanean eta urteko presupostua, berriz, 16.250.000 dolaretakoa dela (Canadako dolare batek 105 pezeta inguru balio du).

1.2. Commission de surveillance

Legea betetzen den ala ez ikustea da Batzorde honen zeregina, ondoren legehausteak eta akatsak zuzentzeko asmoz. Legehausteak eta akatsak kontuan hartzen badira, ez da zigortzearen, egoera aldatzera bultzatzearen baizik (nahiz eta neurri juridikoez ere baliatu, hala behar izanez gero).

Hala ere, legeak betearazteko nahikoa izaten omen dute gehienetan gomendatze hutsarekin, hain da negoziaketari emana Canadako jendea. Adibidez, 6.000 kexa-salaketa heldu omen dira Batzordera eta horietatik 20 bakarrik eraman behar izan omen dituzte auzitegira.

Hasiera batean, Batzorde honek bizilagunek egindako kexa-salaketen arbera jokatzeko, prozedura honekin:

1. Norbaiten kexa iristen da,
2. Inspektoreak egiaztatu egiten du salaketa,
3. Komisariak erruaren berri ematen dute eta gomendioak egiten.
4. Gomendioei kasurik egiten ez bada, auzitegira jotzen da.

Jokabide hori baztertu gabe, beste berri bati ere ekin diote oraindik orain: Batzordekoek beraien hartzen dute iniziatiba, hizkuntza zigortuenik dagoen arloetan batipat. Adibidez, jostailu-arloan eta juduen janari tipikoen arloan sartu behar izan dute eskua oraintsu.

Hona hemen arlo salatuenak:

- janari eta elikagaien arloa: etiketak, erabilerak... direla-ta.
- iragarki komertzial publikoak.
- langileriaren inguruko mundua: ingelesa ez jakiteagatik bereziak izan direla-ta, kontratuak ingelesez dardela-ta...

Guztira, 35 pertsona dira Comission de Surveillance honetan dihardutenak: zuzendaria, komisarioak, inspektoreak, lege eta hizkuntza aholkulariak. Urteko presupostua 1.600.000 dolaretakoa da eta urtero bidaltzen dio txostena Batzorde Nazionalari.

1.3. Conseil de la langue française


«Conseil de la langue française» delakoa zera da: frantsesaren ezarpenak zenbait arlotan aurkitzen dituen eragozpenen azterketarako eta ikerketarako erakundea. «Karta»ren IV tituluari zor dio sorrera.

Zera dagokio batez ere:

- Frantsesaren Quebec-eko egoera dela-ta, horren inguruan sortzen diren arazo teknikoak buruzko aholkuak ematea frantsesaren ardura duen Ministroari.
- Quebec-eko egoera linguistikoaren bilakaera zaintzea eta ikertzea.
- Legearen ezarpena dela-ta, jendea, enpresei eta abarri entzutea.
- Legearen ezarpenari buruzko kontsulta publikoak eratzea.

Hogeita hamazazpi lagun dira Kontseiluaren barruan lanegiten dutenak, soziologia, demografia, hizkuntzalaritza, zuzenbide eta bestelako lanetan.

Honako hau da Kontseiluaren administrazio-egitura: Hamabi pertsonak osatzen dute Kontseilua, nor bere teknikalariak dituelarik: zuzendaria, idazkaria eta hamar batzarkide. Zerbitzu teknikoak, berriz, lau idazkaritzatan banatuak daude. Guzti hori honako organigrama honen arabera:



Gobernuak izendatzen ditu Zuzendaria eta Idazkaria. Gainontzeko hamar batzarkideak, ordea, kontsulta baten ondoren aukeratuak dira. Honela: bi batzarkide elkarte sozio-kulturalen artean, beste bi erakunde sindikalen artean, bi gehiago elkarte patronalen artekoak dira, Unibertsitate-arloetan beste bi eta azkeneko biak talde teknikoaren elkartean.

Kontseiluaren urteko presupostua 2.300.000 dolare ingurukoa da.

«Conseil de la langue française»-ri buruzko dokumentazioa.

«Les publications du Conseil de la langue française» (katalogoa).

«Rapport annuel 1979-1980».

«Rapport annuel 1980-1981».

«Le Conseil de la Langue Française».

2. QUEBEC-EN FRANTSESAREN IRAKASKUNTZAN DIHARDUTEN ERAKUNDEAK: FRANTSESAREN IRAKASKUNTZA BIGARREN HIZKUNTZAREN IRAKASKUNTZA DENEAN

Bi erakundetara jo genuen Quebec-en frantsesaren irakaskuntzaren berri jasotzeko asmoz: etorkinei frantsesa irakasteari emana dagoen C.O.F.I. ra eta Laval Unibertsitatara.

Maila federaleko erakundeetan frantsesaren irakaskuntza aztertzeke aukera zabalagoa izan bagenuen ere, ezin dezakegu Quebec-en ikusia aipatu gabe utzi.

Gure inpresioa azalekoa izango da beharbada, baina badirudi handiagoa dela kanadiarrek legegintzan eta instituzio-eraketan jarri duten ardura, hizkuntz irakaskuntzaren arloan jarri dutena baino. Irakaskuntza hori zentru pribatuetan eta Unibertsitateetan ematen da. Quebec-eko Gobernuak frantseza non eta nola ikas daitekeen aditzera ematen du, baina eskolarik ez du sortzen. Hori dela-eta, ez du bere metodorik landu, ez bere materialerik prestatu. Arrazoia, agian, problema hori bigarren mailakoa izatean legoke; izan ere, oso jende gutxiri bait dagokio.

Ildo beretik, beste hau ere azpimarratu beharrean gaude: Quebec-eko eta Euskal Herriko egoerak konparatzean, hango eta hemengo hizkuntz irakaskuntzarenak direla arlo antzekoena. Bestela esanda, Euskal Herrian badugu Quebec-ek adina baliabide didaktiko. Euskararen arazoa didaktikaren esparruan bukatuko balitz, guztia egina legoke: Euskarak munduak bezainbat urtetako etorkizuna luke. Zoritxarrez, ordea, irakasleek ez ezik, beste askok ere badu horri buruz zeresanik.

Baina, besterik gabe, eman dezagun Quebec-eko bi erakunde horien berri:

2.1. Le Centre d'orientation et de formation des immigrants (C.O.F.I.)

Zentru hau Inmigrazio-Ministeritzaren menpean dago eta bertan frantsesa irakasten zaie inmigrante helduei. Hauetariko gehienek ez dute frantsesaren inolako ezagutzarik zentruan sartzean, eta beraien artean badira analfabetoak ere.

Ikastaro-programa bakoitzak sei maila ditu eta sei aste ematen zaizkio maila bakoitzari, astea 24 ikastorduz osatua dagoelarik. Ikasgela bakoitzak 15 ikasle ditu eta irakasle bakarra maila bakoitzeko.

Ondorioei dagokienez, 30 % iristen dira helmugara, hau da, seigarren mailara, beste 40 % laugarren mailan geratzen diren bitartean. Bada 10 % bat, zenbait arrazoiengatik, bigarren mailara ere iristen ez dena.

C.O.F.I.ko ikasleek aipatutako Ministeritzaren diru-laguntza jasotzen dute. C.O.F.I. erakundea, berriz, Quebec osora zabaldua dago eta baditu zentruak nola Montrealen (5) hala Quebec, Sherbrouck, Hull eta abarretan.

Ez dago internadurik.

Hautzaindegiak ere badituzte zentruetan, ikasleen seme-alabak zaindu ahal izateko.

Quebec-en ikustatu genuen C.O.F.I. zentrua eskola zahar batean kokatua zegoen eta nahiko kaxkarra zen, bai ikasgela eta bai materialaren aldetik.

2.2. Laval Unibertsitateko hizkuntz laborategia

Laval Unibertsitatean ikus-entzugailuen departamendua ikusteko aukera izan genuen.

Hiru sail ditu departamentuak:

1. *Ikus-entzuteko produkzioarena*, honako zerbitzuak dituelarik:

— broadcast telebista-estudioa

— broadcast soinu-estudioa
— ikasleen erabilpenerako telebista amateur-estudioa,
— mailegu-zerbitzua.
— zinten kopiagintzarako zerbitzua.
— argazki eta grafikagintza-zerbitzua.
(Sail honetan 100.000.000 dolare inbertitu dira telebista-estudiorako).

2. *Filmategia*, honako zerbitzu hauekin:

— fitxa eta dokumentazioarena.
— proiektzioena.
— filme, diapositiba eta soinu-dokumentuen kontserbazioarena eta artxibo-zerbitzuarena.

3. *Ikus-entzugailuak hizkuntz irakaskuntzan*, zerbitzu hauekin:

— hiru mota desberdinetako hizkuntz laborategiak.
— kopiagintza-zerbitzua.
— hizkuntz laborategietan erabiltzen diren soinu-zinten artxiboa. Artxibo honetan dozena bat hizkuntzatakako materiala badago, hizkuntza bakoitzerako lau-bost metodo eskaintzen direlarik.

Ikusi genituen hizkuntz laborategiak oso erabilerrazak ziren eta sistema «audio-activo-comparativo» delakoaren eitekoak. Ikasleek erruz erabiltzen zituzten, bai bakarka, inoren laguntzarik gabe, bai taldeka, irakaslearen zuzendaritzapean. Taldeka, hiru ikastaldek lan egin zezaketen ikasgela berean.

Dokumentazioa:

— C.O.F.I.ren informazioa biltzen duen karpeta:
«C.O.F.I. de Québec. Formation linguistique».
«Information pratiques».
C.O.F.I. zerbitzuen berri jasotzen duen orri tolestatua.
— «Guía del consumidor para cursos de lengua francesa en Québec».
— «Service de l'audiovisuel. Université Laval (Karpeta).

- «La cinémathèque est là pour vous...» (Orri tolestatua).
- «La section des laboratoires de langues. Guide d'utilisation» (Irakasleentzat).
- «Guide de l'étudiant. Service de l'audiovisuel: Laboratoires de langues».
- «Audiovisuel. Outil d'apprentissage» (Orri tolestatua).

II.—OTAWAKO HIZKUNTZ ERAKUNDEAK

Frantsesa Quebec-eko hizkuntza ofiziala izanik, maila federalean ingelesa eta frantsesa, biak, dira ofizial. Elebitasun honek erakunde eta zerbitzu bereziak eskatzen ditu. Lan honetan hiru erakunderen berri ematen dugu eta hizkuntza ofizialen komisarioaren egin-beharra azaltzen.

1. BUREAU DES TRADUCTIONS

Departamentu honen zeregina itzulpenak egitea da, nahiz frantsesetik ingelesera, nahiz ingelesetik frantsesera. Hona zertan diharduen:

1. Textu idatzien itzulpenetan.
2. Parlamentu, Kongresu eta abarretan bapateko itzulpenak egiten.
3. Terminologia eta Dokumentazio-sail baten eraketan.
4. Terminologia banku bat antolatzen.

Ikus ditzagun banan-banan.

«Bureau de traductions de textes écrits» delakoaren eskutan dago frantsesera eta ingelesera itzultzea Canada-ko funtzio publikoaren arloan ematen den edozein testu.

1867. urtean kokatu behar da zerbitzu honen sorrera, orduan dekretatu bait zen elebitasuna Parlamentu-erakundeetarako. Hala ere, indarra hartu, 1934.ean hartu zuen, «Bureau des traductions» erakunde ofizial bezala sortu zenean. Harrez gero, ugaldu egin dira «Bureau» honetan dihardutenak: 50, 1934ean; 350, 1968an, 1969an, berriz, erabat aldatzen da Canada osoan frantsesaren egoera legala, urte horretan

baietsi bait zuen Gobernu liberalak (Trudeau buru zela) hizkuntza ofizialen legea. Lege horren babesean, 2.000 langunetara iristen dira «Bureau» honetan lanean dihardutenak. Horrezaz gain, badira 20 % gehiago, noizbehinkako lanetara emanak.

Itzulpen-lanak berekin dakartzatza nahitaez lexikoak argitaratzearena eta terminologi bankua eratzearena.

Otawa-ko *Terminologi Bankuaren* funtzionamendua Quebec-ekoaren antzekoa da, baina administrazio publikoaren zerbitzutan dago soil-soilik.

Ildo beretik, eta batez ere Parlamentuko bapateko itzulpenei begira, funtzionatzen du Blai jaunaren zuzendaritzapean *Bapateko itzulpen Eskolak*. Badugu eskuartean idazki bat, non agertzen bait dira bapateko itzultzaile izateko bete behar diren baldintzak eta ikasleak trebatzeko erabiltzen diren metodoak. Bukatzeko, esan dezagun zorrotz jokatzeko dutela aukerak egiterakoan: 50 hautagaitatik 6 aukeratzen dira, eta hauei sei hilabeteko ikastaro intentsiboak ematen zaizkie.

«Le Bureau des traductions du Gouvernement Canadien» deituriko karpeta, zera hauekin:

«Banque de Terminologie. Classification BTUM».

«Liste des domaines et de leur(s) occurrence(s)».

Hiztegi batzu:

«Lexique. Activité parlementaire».

«Lexique. Activité en personnel».

«Lexique. Informatique».

«Lexique. Gestion».

«Liste des publications» deituriko katalogoa.

Zenbait foileto:

«Le Bureau des traductions».

«La Banque de terminologie».

«Les services de documentation».

«La traduction multilingue».

«Les perspectives de carrière».

«La sous-traitance».

«Programme de formation des interprètes» (fotokopiaz).

2. COMMISSION DE LA FONCTION PUBLIQUE DU CANADA

Erakunde honen zeregina funtzionarioak elebiduntzea da.

Lau puntu ditugu hemen azpimarragarri:

1. Elebidundu behar duten funtzionarioen orientazioa.
2. Behar linguistikoaren identifikazioa.
3. Funtzionarien ikastaroetarako printzipio orokorrak.
4. Ikastaroen elaborazioa.
Ikus ditzagun banan-banan.

1. Orientazioa

Funtzionari bakoitzaren bereizgarriak kontuan izanik orientazio honen bidez zera adierazten zaio interesatuari: dituen ahalmenen arabera, zer zaion egokiena bigarren hizkuntzaren jabe egiteko.

Orientazio honetako etapak:

a) *Testing*

Hautagai bakoitzaren neurketa egiten da, bibliografian aipatzen ditugun test linguistiko eta gainerako lagungarriekin.

b) *Kasuen azterketa*

- Hautagaiaren historia aztertzen da.
- Testen emaitzak ikusten dira.
- Bigarren hizkuntzaren irakaskuntzan eragina izan dezaketen faktoreak identifikatzen dira.
- Eta, azkenik, zenbait hipotesia formulatzen da, hurrengo etapan egiaztatzearen.

c) *Orientazio-elkarrikusketa*

Hautagaiaren gaitasunak aztertzen edo frogatzen dira, aurrez formulatutako hipotesien arabera.

Elkarrikusketa honetan erabaki behar diren puntuak:

- Ikaskuntzarako metodorik egokiena.

— Ikasteko erritmoa.

— Hizkuntza ikasteko behar den denbora.

2. Behar linguistikoaren identifikazioa

Hemen zera egiten da: dauden beharrik ikusi eta hautagaiak behar horietarako prestatu.

3. Ikastaroetarako printzipio orokorrak

Experientzian oinarriturik, andragogia eta ikaskuntza pertsonalizatuaren arabera jokatzeko da.

Beraz, ikaslea pertsona autonomoa da, zenbait gaitasunen jabea eta horien arabera bigarren hizkuntza ikastera datorrena.

Lehenbiziko astean ikasleak bere ikaslearekin dihardu, elkar ezagutzen dute eta ezaguera horren arabera hasten dira eratzeko irakaskuntza pertsonalizatuaren estrategia.

Metodo estruktural-global, analitiko, audiobisual eta abarri ez, baina metodo funtzionalari jarraitzen zaio. Ikaslearen beharrik eta interesak ahaztu gabe, noski.

4. Frantses ikastaroen elaborazioa

Hona hemen ikasleak frantsesaren ikaskuntzan egiten duen bidea:

a) *Aurreazterketa*

- zer nahi du ikasleak frantsesa ikasterakoan?
- zenbat dira egoera berdinean dauden ikasleak?
- nola eta zein egoeratan lan-egiten da ikaslea ibili den Ministeritzan?
- ...

b) *Beharren analisia*

- Norekin izango ditu harremanak ahoz nahiz izkribuz?
- Zertarako?
- Zer gai erabiliko ditu?
- Nola?
- Noiz?...

Analisia honek emango digu zer irakatsi behar den eta nola.

c) *Ikastaroaren elaborazioa*

Ikasle bakoitzaren beharren arabera.

d) *Ikastaroaren frogaketa eta berrikustea*

e) *Ebaluazioa*

Bi gauza neurtzen dira: batetik, ikaslearen aurrerapena eta bestetik, Ministeritza bakoitzeko egoera linguistikoa aldatu den ala ez.

f) *Ikastaroaren jarraipena Ministeritzan*

Ikastaroan zehar ikasitakoak eguneroko lanean jarraipena izan dezan.

Dokumentazioa.

Aurrean xx daramatenak jotzen ditugu interesgarri; x bakarria daramatenak ere badute nahiko interesik.

- xx 1. «Aspects matériels d'un Centre de Testing Linguistique».
- xx 2. «Description des niveaux de competence linguistique en langue seconde».
- 3. «La formation linguistique dans l'Administration publique».
- 4. «Les exigences linguistiques des postes dans l'entreprise».
- 5. «Commission de la Fonction publique du Canada» izenekoaren estudio bat (Karpeta).
- xx 6. «Examen de connaissance de langue Anglais. Guide du Candidat».
- 7. «Les langues officielles» eta abar (Karpeta).
- 8. «Plan des langues officielles» eta abar (Karpeta).
- xx 9. «L'analyse des besoins langagiers des postes bilingues» eta abar (Karpeta).
- xx 10. «Determination du profil linguistique des postes bilingues».
- x 11. «Programme des langues officielles. Critères d'évaluation» eta abar (Karpeta).
- x 12. «Le maintien de l'acquis en langue seconde dans la Fonction publique du Canada».

13. «La participation francophone à la Fonction publique fédérale».

14. «La Revue canadienne des langues vivantes».

xx 15. «La formation continue aux langues non-maternelles».

16. «Loi sur l'emploi dans la Fonction publique» eta abar (Karpeta).

17. «Programme supérieur de formation linguistique: Description et procédures de mise en candidature» eta abar (Karpeta).

18. «Guide de l'étudiant». «A student's handbook».

19. «Les langues officielles au travail».

20. «Langues officielles».

21. «Trousse d'information».

3. COMMISSAIRE AUX LANGUES OFFICIELLES

Hizkuntza ofizialen legeak sortu zuen Komisario-postua. Parlamentuak aukeratzeko du, independentea da, eta Parlamentuak bakarrik ken lezake.

Hiru zeregin nagusi ditu:

— Herriaren defendatzailea da, baina hizkuntz arloan bakarrik.

— Erakunde nagusietako hizkuntz gorabeherak aztertu eta kontrolatzen ditu.

— Komisarioa da bozemaile Parlamentuan hizkuntz arazoetan.

Ezin dezake agindu, baina aginte moral handia du. Hiru arlo nagusitan dihardu:

— Zerbitzu-hizkuntza arloan.

— Lan-hizkuntza arloan.

— Bi talde linguistikoek ekintza publikoetan duten partaidetzaren hobekuntzan.

Canada osoan banatuta dauzkan bulegoetan utz daitezke kexak, idatziz, telefonoz edo norbera bertaratuz.

Kexa hartu ondoren, honela dihardute: kexa egiaztatu egiten dute, kasua

aztertu, behar diren gomendioak egin eta, behar izanez gero, salaketa ofiziala formulatu.

Komisarioaren eskua federala bada ere (hau da, ez probintziala), aurrerapen handia lortu omen dute kargua sortu zenetik, hots, duela hamabi urtetik hona. Yalden jauna da bigarren komisarioa, eta 7 urterako izan ere.

4. CONSEIL DU TRESOR

Erakunde honen eskutan daude mai-

la federalesko hizkuntz politikaren gestioa eta kontrola.

Hona hemen presupostuak:

- Administrazio publiko federalaren barnerako: 250.000.000 dolare.
- Administrazio publiko federalaz kanporako: 200.000.000 dolare.

Beraz, Canada-ko Gobernu federalak 450.000.000 dolare darabiltza hizkuntz arazoetarako, Canada osoan. Quebec-eko Gobernu probintzialak, berriz, beste 85.000.000 dolare.

ORGANISMOS LINGÜISTICOS DE CANADA

Una de las mayores fuentes de sorpresa y motivo de reflexión para quien, embarcado en la empresa de berreuskaldunización de Euskal Herria, se acerca a Canadá, y particularmente a Quebec, para contemplar de cerca el panorama lingüístico de aquel país y analizar el proceso de recuperación de la lengua francesa, lo constituye, sin duda, el gigantesco aparato institucional y burocrático que se encuentra al servicio de una bien elaborada política lingüística que, paso a paso e inexorablemente, va cubriendo las etapas previstas y logrando los objetivos propuestos.

Tres son las instituciones que deben su creación a la ley 101 y componen el armazón del amplio entramado donde se apoya la política de francización de Quebec: El «Office de la langue française», la «Commission de surveillance de la langue française» y el «Conseil de la langue française».

El «Office de la langue française» tiene la misión general de velar por la aplicación de la ley y especialmente el asegurar que el francés llegue a ser lo más rápidamente posible la lengua de las comunicaciones, del trabajo, del comercio y de los negocios en Canadá. El Office debe también definir y conducir la política de Quebec en materias como la investigación lingüística y la terminología.

El segundo organismo «Commission de surveillance de la langue française» está encargado de hacer respetar la ley y hace encuestas motivadas por quejas recibidas por propia iniciativa.

Esta comisión, cuando lo juzga oportuno, pide al Procurador general intente los seguimientos previstos por la ley contra los contraventores.

Finalmente, el tercer organismo instituido en virtud de esta ley es el «Conseil de la langue française». Este organismo debe aconsejar al Ministro sobre todo lo relativo a la interpretación y aplicación de la ley y al status de la lengua francesa en Quebec. Debe igualmente vigilar la evolución de la situación lingüística y, finalmente, dar al Ministro responsable criterios acerca de los reglamentos preparados por el «Office de la Langue française».

Para completar el cuadro institucional de Quebec caben reseñar, asimismo, dos realidades más cercanas al quehacer didáctico y exponentes de una amplia red de servicios, centros y organismos dedicados a la enseñanza del francés como lengua segunda. Nos estamos refiriendo al C.O.F.I. (Centre d'orientation et de formation des immigrants) y a los laboratorios de lengua de la Universidad Laval de Quebec.

A nivel federal destacan, además de la singular figura del Comisario de las lenguas oficiales, Defensor del pueblo (ombudsman) en el terreno lingüístico, las siguientes instituciones: El «Bureau des traductions», organismo encargado de las traducciones de los textos oficiales, de la traducción simultánea en el Parlamento, Congresos..., de la creación de una sección de terminología y documentación y, finalmente, de la puesta en funcionamiento de un banco de terminología; la «Commission de la fonction publique du Canada», cuya función es la de formar funcionarios bilingües; y el «Conseil du trésor», organismo que gestiona y controla financieramente el desarrollo de la política lingüística a nivel federal.

ORGANISMES LINGUISTIQUES DU CANADA

Une des plus grandes surprises et motif de réflexion pour la personne engagée dans l'entreprise de rebasquisation de Euskal Herria, qui se penche sur le Canada et particulièrement le Québec, pour observer de près le tour d'horizon linguistique de ce pays et analyser le processus de récupération de la langue française, est sans doute le gigantesque appareil institutionnel et bureaucratique au service d'une politique linguistique bien élaborée qui peu à peu et inexorablement remplit les étapes prévues et accomplit les objectifs proposés.

Les institutions qui doivent leur création à la loi 101 sont trois: elles composent l'armature sur laquelle s'appuie la politique de francisation du Québec: «L'Office de la Langue Française», «La Commission de Surveillance de la Langue Française», et «Le Conseil de la Langue Française».

L'Office de la langue française a pour mandat général de veiller à l'application de la loi et notamment de s'assurer que le français devienne le plus rapidement possible la langue des communications, du travail, du commerce et des affaires au Québec. L'Office doit aussi définir et conduire la politique québécoise en matière de recherche linguistique et de terminologie.

Le deuxième organisme, la Commission de surveillance de la langue française, est chargé de faire respecter la loi et fait enquête après réception de plaintes ou de son propre chef. C'est cette commission qui, si elle le juge à propos, demande au Procureur général d'intenter les poursuites prévues par la loi contre les contrevenants.

Enfin, le troisième organisme institué en vertu de cette loi est le Conseil de la langue française. Cet organisme doit conseiller le Ministre sur toute question relative à l'interprétation et à l'application de la loi et au statut de la langue française au Québec. Il doit également surveiller l'évolution de la situation linguistique et, enfin, fournir des avis au Ministre responsable de l'application de la Charte sur les règlements préparés par l'Office de la langue française.

Pour compléter le cadre institutionnel du Québec, il nous faut signaler également deux réalités plus plus proches du travail didactique et représentants d'un vaste réseau de services, centres et organismes chargés de l'enseignement du français comme deuxième langue. Nous nous référons au COFI (Centre d'Orientalisation et de Formation des Immigrants) et aux laboratoires de la langue de l'Université Laval de Québec.

À l'échelon fédéral apparaissent en plus de la singulière figure de l'ombudsman dans le domaine linguistique, les institutions suivantes: «Le Bureau de Traductions», organisme chargé des traductions des textes officiels, de la traduction simultanée au Parlement, Congrès..., de la création d'un département de terminologie et documentation et finalement de la mise en fonctionnement d'une banque de terminologie: «La Commission de la Fonction Publique au Canada» dont la tâche est de former des fonctionnaires bilingues, et le «Conseil du Trésor» organisme qui mène la gestion et contrôle financièrement le développement de la politique linguistique à l'échelon fédéral.

LINGUISTIC INSTITUTIONS OF CANADA

Somebody who, while taking part in the task of Basque language acquisition in the Basque country, goes to Canada, and especially to Quebec to follow closely the linguistic situation of that country and to analyze the process of the recovery of the French language, will be surprised and doubtlessly be forced to contemplate, by the existence of a gigantic institutional and bureaucratic display that serves a well-made linguistic policy which, step by step and unavoidably, covers the planned stages and obtains the proposed aims.

There are three institutions which were created by the law 101. They form the main frame

that supports the French-acquisition policy in Quebec: The «Office de la Langue Française» (French language Bureau), the «Commission de Surveillance de la Langue Française» (French Language Vigilance Commission), and the «Conseil de la Langue Française» (French Language Council).

The French Language Bureau must vigilate the application of the law and especially make sure that the French language becomes, as soon as possible, the language of work, communications, commerce and business in Quebec. The Bureau must also define and lead the

Quebec policy regarding linguistic research and terminology.

The second institution, the French language Vigilance Commission, must make sure the law is respected and must investigate complaints, or follow its boss instructions. This Commission, if it considers it necessary, will ask the General Procureur to prosecute the law-breakers according to the law.

The third institution created by this law is the French Language Council. This Council must give the Minister advice about all matters concerning the interpretation and application of the law, and the status of the French language in Quebec. It must also vigilate the evolution of the linguistic situation, and advise the Minister in charge of the application of the Chart about the regulations prepared by the French language Bureau.

Two realities on the didactic level must also be mentioned to complete the description of the institutional situation in Quebec. They

are examples of a wide network of services, centres, and institutions dedicated to the teaching of French as a second language. They are the C.O.F.I. (Immigrant Orientation and Formation Centre) and the language laboratories of the University Laval in Quebec.

Besides the Commissary of the Official Languages, the ombudsman on the linguistic field, the following institutions stand out on the Federal level:

— The «Bureau of Translations», an institution in charge of the translation of official papers, in charge of a section of terminology and documentation that will eventually lead to the creation of a terminology bank.

— The Commission of the Public Function of Canada, whose task is to teach bilingual civil servants.

— The Treasury Council, which administers and controls the finances of the development of the linguistic policy on a federal level.